# Illunbe berriak Donostiako kultur eta kirol-bizitzaren erdigunea izateko asmoa du

*Udalak proposatu du erabilera anitzerako pabiloia egitea, ingurua berritzea eta Anoeta kirol hiriarekin, eta beraz, hiriarekin integratuta egotea*

"Illunbe hiriak merezi duen erabilera anitzerako pabiloian bihurtuko da". Horrela hasi du Donostiako alkate Eneko Goiak PSE-EEren bozeramaile Ane Oyarbiderekin batera egindako prentsa-agerraldia. Bertan, Illunbe bera eta ingurua berritzeko aurreproiektua aurkeztu dute.

Alkateak eta Ekonomia zinegotziak Udalak diseinatutako aurreproiektua aurkeztu dute. Aurreproiektuaren aurkezpenarekin zaharkitutako zezen plaza berritzeko prozesuari ekiten zaio, hain zuzen ere, kirol-, kultur- eta erabilera anitzerako ekitaldiak hartuko dituen pabiloia egiteko prozesuari. Aurreproiektua sakonago garatu beharko da eta ezinbestekoa izango da finantzaketa zehazteko akordioa egitea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Bertan ere aurreikusten dira, Illunbe ingurua berritzea, saihesbidearen gainetik pasarela egitea eta lur-azpian aparkaleku handi bat sortzea.

Instalazio berriaren oinarria egungo instalazioa izango da, izan ere, egungoa zati batean bere horretan geratuko da, baina bi kantxa izango ditu: nagusiak 15.000 ikusleentzako edukiera izango du, eta bigarren kantxa osagarri bat egingo da edukiera txikiagoarekin (2.500 eta 3.000 ikusleentzako edukierarekin). Azken hau kirol jarduerak antolatzeko zuzenduko da, eta horrenbestez, erabilera handiagoa emango zaio. Hortaz, Illunbe Berriak erantzuna emango die hiriko elite mailako klubek dituzten beharrei, izan ere, instalazio modernoa, berritua eta edukiera beharren arabera moldatu daitekeena izango dute.

Era berean, proiektuak aurreikusten du instalazioa erabili ahal izatea kultur-jarduerak antolatzeko, esaterako tamaina ertaineko kontzertuak egiteko, baita jarduera sozialak antolatzeko ere, eta kontuan hartu ditu garrantzia duten beste hainbat gauza, besteak beste, segidakoak: sarrera-irteerak, aparkalekua edo duela urte batzuk jarduera komertziala hartzen zuen eremuak izan ditzakeen etorkizuneko erabilerak.

Eneko Goiak azpimarratu du, asmo handiko proiektua dela, hain zuzen ere, zaharkituta gelditu den instalazioa berritzea baino askoz gehiago bilatzen duen proiektua. Izan ere, hiriaren potentziala handitu nahi du eta instalazio adierazgarrian bilakatzea nahi du, hiriak dituen beharrei erantzuna emateko. Illunbe Berriak hiriko klubek adierazitako beharrei erantzuna emango die, eta beste hainbat kultur- eta gizarte-ekitaldi hartuko ditu, instalazioa hiriko kirol- eta kultur-jardueraren erdigunea bihurtuz.

**Erabilera anitzerako eta inguruarekin integratuta**

Horrenbestez, Illunbe erabilera ezberdinak izan ditzakeen zezen plaza zaharkitu bat izatetik, erabilera anitzerako pabiloia izatera pasako da. Eta bertan ekitaldi ugari egin ahal izango dira, baita zezenketak ere.

Halaber, aurreproiektuak inguruan honako berrikuntzak egitea aurreikusten du: ingurua berritzea, sarrera berria sortzea, egun dauden bideak aldatzea eta Anoeta kirol hiriarekin integratuta egotea. Horren harian, Donostiako alkateak segidakoa nabarmendu du: "Illunbera oinez joateko bidea Anoeta kirol hiritik egingo da, "high line" berri bat sortuta, hau da, kirol hiritik saihesbidearen gainetik kalitate handiko oinezkoentzako pasabide baten bitartez.

Gainera, egun Illunben dagoen bidea mendebalderantz eramango da eta Illunberen inguruan plaza handi bat egingo da, egun erabilerarik ez duen eremu bat berreskuratuz, eta bertan programatuko diren ikuskizunetara joaten diren pertsonentzako aisialdi eremua sortuz.

PSE-EEren bozeramaile Ane Oyarbidek azpimarratu du, "aurreproiektuak Illunbe eraldatzeko dugun konpromisoa eta ausardia erakusten duela, izan ere, eremua hirira gerturatuko da harmonikoki. Ekimenak legealdi hasieran Anoetako kirol-instalazioak hobetzeko eta hiriko kluben beharrei erantzuna emateko adierazi genuen apustu sendoa indartzen du".

Ildo beretik, Oyarbidek esan du, "erabilera anitzerako pabiloi berriak eskaera horiek guztiei aurre egin ahal izango die, eta gainera Donostia kontzertu handien eta ikuskizunen zirkuituan jarriko du, hiriko kultur-eskaintza handituz eta ekonomia bultzatuz".

Illunbe inguruko bidea mendebalderantz eramatea eta aisialdi eremu berriaren sorrerak egun dagoen aparkalekua kentzea ekarriko du. Horri aurre egiteko, lur-azpian, 1.000 ibilgailuentzako aparkalekua egingo da, hain zuzen ere, Illunbek berak zein Anoetan dauden jarduerei, esaterako Realaren partidak, zerbitzu emango dien aparkalekua. Eta era berean, hirira bisitari kopuru handiak etortzen direnean aparkaleku disuasorio moduan erabili ahal izango da".

**Parke Teknologikoa handitzeko aukera kontuan hartzen du**

Donostiako alkate Eneko Goiak eta PSE-EEren bozeramaile Ane Oyarbidek aurkezpena egin dute aurreproiektua erakusten duen fotomuntatze baten laguntzaz. Bertan, erabilera anitzerako pabiloiaren aurrean bi eraikin ikusten dira. Horren harian, Eneko Goiak gogorarazi du, "Parke Teknologikoarekin hitz egiten jarraitzen dugula egungo instalazioaren aurrealdean dagoen eremua – hain zuzen ere, lokal

komertzialak hartzen zituen eremua – hartu ahal izateko, Parke Teknologikoa zabaldu ahal izateko”.

Era berean, esan du, “beharrezkoa ikusten genuela erabilera anitzerako pabiloiaren aurreproiektuak nolabait kontuan hartzea leku horretan beste eraikinen bat egon daitekeela, baldin eta Parkearekin negoziazioa ondo amaituko balitz. Horrek berresten du aurreikusi diren sarrera berrien beharra, baita inguruan sortuko den aisialdi eremua ere, izan ere, Parke Teknologikoaren zabaltzeari zerbitzu emango lioke ere.

**Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte hartzea**

Dagoneko Donostiako Udalak Illunbe berritzeko finantzaketan parte hartzeko prestutasuna agertu duten Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu die aurreproiektua. Horri buruz, Eneko Goiak honakoa esan du: “Behin aurreproiektua eginda eta dauden beharrak ikusita, hiru erakundeak elkarlanean aritzeko unea da behin betiko proiektua idatzi eta gauzatu ahal izateko, Donostiak eta ikuskizunak, jarduerak eta tamaina erdiko kontzertuak antolatzen dituzten hiriko kirol klubek eta kultur-eragileek hainbeste behar dugun eta merezi dugun erabilera anitzeko pabiloia izan dezagun”.

Donostia, 2025eko otsailak 4

# El nuevo Illunbe aspira a ser el "epicentro" de la vida deportiva y cultural de Donostia

*El Ayuntamiento presenta el anteproyecto que plantea un nuevo pabellón versátil con un entorno remodelado e integrado con la ciudad deportiva de Anoeta y el resto de la ciudad*

"Illunbe se convertirá en el pabellón multiusos que merece esta ciudad". El alcalde de Donostia / San Sebastián, Eneko Goia, ha iniciado así la comparecencia conjunta con la concejala de Economía, Ane Oyarbide, en la que han presentado el anteproyecto para remodelar tanto la actual instalación como el entorno.

El alcalde y la concejala de Economía han presentado el anteproyecto que ha diseñado el Ayuntamiento, y que supone el pistoletazo de salida del proceso que culminará con la remodelación de la antigua plaza de toros para convertirse en un pabellón dirigido a usos deportivos, culturales así como a eventos de carácter multidisciplinar. El anteproyecto, que requiere de un desarrollo más exhaustivo y un acuerdo con la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco para su financiación, incluye la remodelación del entorno de Illunbe, la construcción de una pasarela flotante sobre la variante así como un gran parking soterrado.

La nueva instalación tendrá como base la actual, dado que se conservará parcialmente, pero contará con dos ''arenas'': la principal, con un aforo de 15.000 espectadores, y una arena secundaria de menor capacidad (entre 2.500 y 3.000 asientos), destinado a actividades deportivas, lo que dotará al conjunto de un mayor potencial e intensidad de uso. Así, Illunbe Berria dará respuesta a las necesidades de los clubes de élite de la ciudad, que contarán con una instalación moderna, renovado, y que se puede adaptar a las diferentes necesidades de aforo en función de la asistencia prevista.

Del mismo modo, el proyecto contempla su uso tanto para eventos culturales, como conciertos de tamaño medio, como otros eventos sociales, y tiene en cuenta otros aspectos relevantes, como los accesos, el parking o su convivencia con los futuros usos que pueda tener la antigua zona comercial de Illunbe.

Eneko Goia ha subrayado que "este es un proyecto ambicioso, que busca no sólo retocar una instalación que a todas luces se nos había quedado obsoleta. Busca ampliar el potencial de la ciudad y conseguir un equipamiento emblemático, que dé respuesta a las exigencias que tiene la ciudad. El nuevo Illunbe permitirá cubrir las necesidades mostradas por los clubes de la ciudad, así como otros eventos culturales y sociales, convirtiendo la instalación en el epicentro de la actividad polideportiva y cultural de la ciudad".

**Versátil e integrado en el entorno**

El proyecto diseñado cambia el eje principal de la instalación: así, Illumbe pasará de ser una plaza de toros que puede ser utilizada de forma secundaria para otros fines, a ser un pabellón de multiusos versátil en la cual también se podrá desarrollar un evento taurino.

Junto a ello, el anteproyecto contempla la remodelación del entorno, la creación de un nuevo acceso, la modificación de los viales existentes y su integración en la ciudad deportiva de Anoeta. El alcalde de Donostia / San Sebastián, ha señalado que “el acceso a pie al pabellón multiusos de Illunbe se realizará desde la ciudad deportiva de Anoeta a través de la creación de un nuevo ‘’high line’’, un paseo-avenida que desde la ciudad deportiva cubriendo gran parte de la variante permite un acceso peatonal de gran calidad a la plataforma de Illunbe”.

Además, el vial existente se desplazará hacia el oeste, para poder realizar una urbanización acorde en forma de gran plaza-parque, revitalizando un espacio actualmente en desuso, que podrá ser utilizado como zona de esparcimiento por quienes acudan a los diferentes espectáculos que se programen.

La portavoz del PSE-EE, Ane Oyarbide, ha destacado que “este anteproyecto refleja nuestro compromiso y determinación por transformar Illunbe, integrando este espacio de manera más cercana y armónica con la ciudad. Se trata de una iniciativa que refuerza nuestra apuesta, sostenida desde el inicio de este mandato, por mejorar las infraestructuras deportivas de Anoeta y dar respuesta a las necesidades de los clubes locales”.

En este sentido, Oyarbide ha asegurado que “el nuevo pabellón multiusos no sólo permitirá cubrir estas demandas, sino que también situará nuevamente a Donostia en un circuito de grandes conciertos y espectáculos ampliando la oferta cultural de la ciudad y generando un importante impulso económico”.

El desplazamiento del vial y la creación de la nueva zona de esparcimiento, provocará la desaparición del aparcamiento en superficie existente, que será sustituido por un aparcamiento subterráneo bajo la instalación con capacidad para 1.000 vehículos. “Será un aparcamiento que dará servicio tanto al pabellón cuando acoja eventos, como a Anoeta en los partidos de la Real o cuando el estadio tenga otros usos, y podrá servir como aparcamiento disuasorio en épocas de mayor afluencia a la ciudad”.

**Tiene en cuenta la posible ampliación del Parque Tecnológico**

El alcalde de Donostia / San Sebastián, Eneko Goia, y la concejala de Economía, Ane Oyarbide, han realizado la presentación apoyados de un fotomontaje de la posible

nueva instalación que muestra la presencia de dos edificaciones delante de la misma. Eneko Goia ha recordado que “continuamos en conversaciones con el Parque Tecnológico sobre una posible adquisición de los elementos situados en el frente de la actual instalación, que acogían los locales comerciales y que se destinarían a la ampliación del Parque”.

En este sentido, ha señalado que “creíamos necesario que el anteproyecto recogiera de alguna manera que en ese lugar podría ubicarse alguna edificación, si las conversaciones llegan a buen puerto, lo que además, refrendaría la necesidad de generar los nuevos accesos proyectados, así como la zona de esparcimiento exterior, que también daría servicio a la posible ampliación del Parque Tecnológico a dicha parcela”.

**Participación de Gobierno Vasco y Diputación Foral de Gipuzkoa**

El anteproyecto ha sido remitido tanto al Gobierno Vasco como a la Diputación Foral de Gipuzkoa, que mostraron su disposición a participar la financiación del proyecto. A este respecto, Eneko Goia ha asegurado que “ahora que tenemos el anteproyecto con las necesidades ya definidas, es el momento en el que las tres instituciones rememos en la misma dirección para poder redactar el proyecto definitivo, en el que se concretará la financiación, para posteriormente ejecutarlo y que Donostia, sus clubes deportivos y los agentes culturales encargados de organizar conciertos y espectáculos de medio formato puedan contar con el pabellón multiusos que tanto necesitan y merecen.

Donostia / San Sebastián, 4 de febrero de 2025